



consumo2000

www.eke-fce.com

Editada por la Federación de Consumidores de Euskadi
Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa argitaratua

13

Aurkibidea

Opening kasuaren gaineko epaia



1



Gabonetako gastuak

3

Kontsumitzaileen babesa, ondasun ukigarrien kontratazioaren aurrean



5



Elikadurako osasunaren kanpaina

6

EKE Eusko Legebiltzarrean

7



Etxebizitzi buruzko aholkularitza

9

Opening kasuaren gaineko epaia

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, 2007ko martxoan, behin betiko epaia eman zuen Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak eskatuta aurkeztu den eskariari dagokionez, Open Master Spain S.A. irakaskuntza zentroen eta demandatutako eskaintzen zituen ikastaroen finantziazioan inplikatutako kreditu erakundeen aurka.

Epai honen berritasun nagusia da, Prozedura Zibilaren Lege berriaren babespean, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak zilegitasun osoz ordezkatzeko ditzakeela judizialki kontsumitzaileen interes kolektiboak. Modu horretan, epai judizialean aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiak epaiaren betearazpenean bertara daitezke, epaiaren onurak berenganatzeko. Epaiak hiru puntu jasotzen ditu, batez ere:

1.- OPEC English Master Spain S.A. eta ikasleen edo ikasleak ordezkatzeko dituzten pertsonen artean hitzartutako irakaskuntza-kontratu guztiak ebatzitzat hartzen dira, baldin eta kontratu horiek indarrean egon baziren 2002ko uztailean edo dagokion irakaskuntza-zentroaren itxierako data efektiboan. Era berean, baldintza hauek bete behar dira:

A.- Indibidualki edo kolektiboki ez egotea inplikatuta dagoeneko sustatuta dauden beste prozedura judizial batzuetan, beste organo judizial batzuen aurrean; eta hori, prozedurak ebatzita dauden edo ez kontuan hartu gabe, eta Federación de Consumidores de Euskadi - Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak ematen duen babes-esparrura mugatuta.

B.- Open ikastaroak jaso ezin izan

(Jarraitu) ►



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Merkataritza, Kontsumo eta Industria
Segurtasuneko Sailburuordetza
Kontsumo eta Industria Segurtasuneko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Viceconsejería de Comercio, Consumo y
Seguridad Industrial
Dirección de Consumo y Seguridad
Industrial



Federación de Consumidores de Euskadi

Juan de Ajuriaguerra 9 - 7º
48009 BILBAO
Tel: 94 424 92 10. Fax: 94 424 64 20
e-mail: eke@arrakis.es



dituzten ikasleak izatea (izaera hori izan behar dute, kontratua euren gurasoek, zaintzaileek, legezko ordezkariak edo beraiek sinatu zutelako). Ikastaroak hitzartutakoak izan behar dira, eta, erakundearen itxiera faktikoaren unean, indarrean egon behar izan ziren; era berean, ezintasuna izan behar zen eskola batzuk jaso ahal izateko, asteka, hilabeteka edo hiru hilabete osoko, edo zenbait urteko iraupena zutela aurreikusitako ikastaroka.

2.- Finantziario, kreditu-lagapen edo beste edozein antzeko modalitatetako kontratuak ebatzitzat hartzen dira, eta gauza bera gertatzen da Open English Master Spain S.A., Banco Santander Central Hispano, Finanzia Banco de Crédito S.A., Pastor Servicios Financieros EFC eta Eurocrédito EFC S.A. erakundeek erabilitako edozein modalitaterekin, baldin eta hizkuntzen irakaskuntza-kontratuak finantzatzeko balio izan bazuten, Open English Master Spain S.A. erakundeari eta lehen aipatutako zigor-erabakiko egoeran dauden ikasleei dago-kienez.

3.- Zigorra ezarri zaie Open English Master Spain S.A., Banco de Santander Central Hispano, Finanzia Banco de Crédito S.A., Pastor Servicios Financieros EFC eta Eurocrédito EFC S.A. erakundeei, aipatutako finantziario kontratuetatik eratorritako edozein diru-kopuru kobratzeko prozesua berehala geldiarazteko.

4.- Zigorra ezarri zaie Open English Master Spain S.A., Banco de Santander Central Hispano, Finanzia Banco de Crédito S.A., Pastos Servicios Financieros EFC eta Eurocrédito EFC S.A. erakundeei, ikasle guzti-guztiek edo epai honen 1. puntuari adierazitako gainontzeko pertsonen hileroko diru-kopuru guztiak itzultzeko, interesekin eta ordainketa, finantziario, eskurako, kreditu-lagapen edo gainontzeko beste edozein modalitatetan egindako ordainketekin; eta hori, 2002ko uztailetik edo dagokion irakaskuntza-zentroen itxiera efektiboko egunetik hasi eta gaur arte edo kobrantzak modu efektibokan geldiarazi diren unera arte.

5.- Aipatutako erakundeei berariaz debekatzen zaie prozedura honek aipatzen dituen ikasleen edo irakaskuntzarekin lotutako finantziario kontratuen titularren izenak kaudimen eta ondareko erregistroei buruzko fitxategietan (berankorren erregistroak) sartzea, eta agintzen zaie, baldin eta oraindik idazpenak geldiarazi ez badira, berehala baliogabetzeko prozedura honetan ebatzitzako kontratuei buruz egindako idazpenak.

Epai honen aurrean, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargotik, kaltetuei jakinarazi nahi diegu Elkargoa prest dagoela aipatutako epaiaren betearazpena sustatzeko, hori egokitzen jotzen duten kaltetu guztientzat.



Gabonetako gastuak



Gabonak iristen direnean, kontsumitzaileak urtearen gainerakoan aurrekaririk ez duen dinamika kontsumista batean murgiltzen gara. Gure ohiko sen ona eta erantzukizuna alde batera utziz, modu zentzugabean kontsumitzen hasten gara, erosketa gehiago eginez eta diru gehiago xahutuz. Egoera horren erantzulea ez da kontsumitzaileen heldutasun falta, Gabonak ospatzeko ohituretan gertatu diren aldaketak baizik. Ospakizun erabat familiarrak izatetik, kontsumismoaren adierazpenik gorenena izatera pasatu dira Gabonak.

Horrekin zerikusi handia du publizitatearen fenomeno indartsu eta oldarkorrek. Publizitateak eragin izugarria du kontsumitzaileengan; mota guztietako formatuak erabiliz, borondate irmoenak limurtzen eta ezerezten ditu. Horren ondorioz, Gabonetan biztanleko diru gehien gastatzen duten EBko herrialdeetako bat izatera pasatu gara, errenta maila handiagoak dituzten beste herrialde batzuk nabarmen gaindituz.

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoarekin (EKE) lankidetzan egindako ikerketa baten arabera, aurtengo Gabonetan aurrekoetan baino diru gehiago gastatuko dugu. Horren arrazoiak zera dira: erosketa saskiaren garestitzea, Gabonetako produktuen prezioen gorakada, eta arropetan, oinetakoetan eta aisian izandako igoera (sektore horietan kontzentratzen da Gabonetako gastu handiena).

Aurten, Euskal Herriko familiak 1.000 E xahutuko dituzte batez beste, joan zen urtean baino %6 gehiago. Zenbateko deigarria da oso, kontuan izanik familiak inoiz baino zorpetuago daudela eta interes lasen igoerek egoera hori are gehiago okertuko dutela.

Gomendioak

Aurrerapena eta aurreikuspena dira gastuen eta prezioen gorakadari aurre egiteko armarik eraginkorrenak. Supermerkatuetara eta jostailu dendetara aurrerapen handiz joanez gero, diru asko aurreztu dezakegu, batez ere eskaintza bereziak aprobetxatzen baditugu.

Ezinbestekoa da aurrekontu neurritsu bat zehaztea, merkatuak eskaintzen digun aukera zabala kontuan hartuz eta ezagunagoak izate hutsagatik garestiagoak diren produktuak saihestuz. Bazkari eta afariei dagokienez, plater tradizionalen aurrean alternatibak bilatzea komeni da, merkatuak eskaintzen duen aukeraren barruan produktu orekatuak eta elikagarriak aukeratuz.

- **Erosketak aldeztu aurretik egin; izan ere, azken egunetako presa dela-eta, erosketak ez ditugu arrazoizko moduan egiten, eta, gainera, prezioak asko igotzen dira.**
- **Bidezko merkataritzako dendak, onura sozialak ekartzeaz gain, opari bat egiteko alternatiba ezin hobea izan daitezke.**
- **Begiratu ondo erosketa tiketei, iraungipen datan arreta berezia jarritz.**
- **Ondasun iraunkorrak erosten direnean, gorde ordainagiria eta behar bezala zigilatutako bermea.**
- **Arau brokor gisa, erosketak Eusko Jaurlaritzaren arbitraje sistemari atxikita dauden establezimenduetan egin.**

Gastuaren banaketa

Janaria eta edaria

Janarian eta edarian 400 inguru gastatuko ditugu.

Arrainak eta itsaskiak: Aurrekontuko zati handienetako bat arlo honetara zuzenduko dugu; hain zuzen ere, izar-produktuen prezioak asko igotzen dira Gabonetan, bisiguarena, muxilena eta itsaski freskoena kasu.

Arrain eta itsaskietan 150 gastatuko ditugu batez beste; aurrekontua murrizteko era bat beste arrain mota batzuk aukeratzea da; izokinak, esaterako, 9 inguru balio du, bisigua 40 kostatzera iris daitekeen bitartean.

Haragia: Haragiaren prezioak nahiko egonkor mantendu ohi dira. Aurten, batez beste 100 gastatuko ditugu. Izar-produktuetako batzuk azpizuna eta esneko arkumea dira.

Hestebeteak eta pateak: 45 inguru gastatuko ditugu.

Edariak: Cava eta ardoak: 45

Turroiak eta gozokiak: 60

Aurtengo erosketak saskia joan zen urtean baino %8 garestiago irtengo zaigu. Horregatik, jendea lehengai merkeagoak bilatzen saiatuko da Eguberri eta Gabon Zahar eguneko afariak prestatzeko.



Opariak eta jostailuak

Gastua joan zen urtekoaren antzekoa izango da, 260 euro ingurukoa.

Osagai elektronikodun jostailu gero eta gehiago erosten direnez, gastua igo egingo dela aurreikusten da.

Loteria

Loterian 120 inguru gastatuko ditugu. Arlo honetan ezinbestekoa da aurrekontu bat zehaztea, bestela poltsikoak partaidetzaz gainezka amaitu dezakegu.

Aisia eta ospakizunak

120. Azkenaldian, gero eta jende gehiago joaten da kanpora (elurretara, etab.) urtearen amaiera ospatzeko. Horrelako bidaiaren bat aukeratuz gero, gure gastuak nabarmen igo daitezke.

Kontsumitzaileen babesa, ondasun ukigarrien kontratazioaren aurrean

Duela gutxi, Diputatuen Kongresuak onartu egin du prezioaren itzulketako eskaintzadun Ondasunen Kontratazioaren Aurrean Kontsumitzaileak Babesteko Lege berria, Ondasun Ukigarrien Legea izenarekin ezagunagoa dena.

Senatutik pasatu ostean, Lege horretan Xedapen Gehigarri bat gehitu da, zeinen bitartez Forum Filatélico y Afinsa Bienes Tangibles enpresarako izapidetu den lehiaketa-prozeduran planteatutako arazoa konpondu nahi baita.

Xedapen Gehigarri horren arabera:

1.- Kaltetuen babeserako hartutako neurriei buruzko txosten bat aurkeztu beharko du Gobernuak, Legea indarrean sartu eta hilabeteko epean.

2.- Epe horretan bertan, Gobernuak lan-plan bat ere aurkeztuko du, kaltetuak babesteko neurri gehigarri posibleak aztertzeko, eta, zehazkiago esateko, konturako aurrerakinen ICO ildoak hobetzeko. Horrela, aurrerakinaren gehieneko zenbatekoa handitu egin nahi da,

oraingo %15etik %17,5era pasatuz. Zenbatekoak oraingo 3.000,00 -etatik 6.000,00 -tara joango liratenke.

Berritasun gisa, inbertitutakoaren %40 ere eskura daitenke, 15.000,00 -ko mugarekin, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen kasuan eta, modu pilagarrian, baldintza hauek betetzen badira:

- Langabezian, minusbaliotasunean edo erretiroan egoitea, edo Gizarte Segurantzako sistemaren prestazio ekonomikoak jasotzea, beti ere zenbateko horiek lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak badira.

- Ondarearen gaineko Zergaren Legean salbuetsitako gutxieneko gisa ezarritako zenbatekoa baino balio txikiagoko ondasun eta eskubideen titularra izatea.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) dela eta, 22.000,00 baino gehiagoko errenta gordinik ez jasotzea.

- Zerga-zorrak eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta izatea.

3.- Azkenik, Gobernuak behartuta dago, Legea indarrean sartu eta 6 hilabeteko epean, aurreikusitako babes-neurrien inpaktua aztertuko duen ikerketa bat egitera; bertan, kaltetuei ahalik eta itzulketarik handiena egiteko aukera emango duten alternatiba posibleak ere

jasoko dira, 2008 eta 2011. urteen arteko ekitaldi ekonomikoetan aipatutako erakundeen aurka egindako jardunei dagokienez. Horretarako, Estatuak baimena eman dezake dagozkion kredituak ondasun higarri gisa itzultzeko, likidazioa zaila eta denbora aldetik luzea izan baitaiteke bestela.

Lege honen onura posibleak ez dira urtarrila baino lehen beteko, Gobernuak aurkeztu behar duen lan-planaren hasieraren zain geratuz.



Elikadurako osasunaren kanpaina


Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osasun Publikoko Zuzendaritzaren bitartez, herritar guztiei zuzendutako kanpaina bat jarri du abian, elikagaiak manipulatu, prestatu eta aurkezteko orduan ohitura higieniko osasungarriak sustatzeko asmoz.

Horretarako, dibulgaziozko zenbait liburuxka eta kartel argitaratu ditu, eta, bertan, elikagaiak prestatzeko orduan prak-

tika onekin zerikusi zuzena duten oinarrizko zenbait alderdi daude jasota.

Euskadiko Kontsumitzaileen Federaziotik eta Federazioa osatzen duten elkarteetatik, modu positiboan baloratu dute kanpaina hau, eta, era berean, adierazi dute kanpainaren zabalkundearen lagundu nahi dutela, bazkide eta kontsumitzaile guztiei helaraziz.

Sukaldaritza osasungarria eta segurua



1 Arrautza irabiatu ondoren, platera aldatu eta plater garbi bat erabili tortillak zerbitzatzeko edo gordetzeko.



2 Goringoa eta zuringoa banatzeko, ez erabili arrautzaren oskola. Edalontzi edo mahai-tresna garbiak erabili.




3 Behar duzun janari-portzioa baino ez berotu.



4 Arrautza gordetzea edo ondo gordinez prestatutako janaria hozkailuan gorde baino, Janari hori etxetik kanpora eraman behar baduzu, hozkailu eraman-garria eraman.




5 Hozkailu barruan janariak ezaitu gorde, eta eskuzko gordinak hozkailutik kanpora banatu.




6 Arrautzak erabiltzen dituzunean, erreparatu ea oskola garbi, osorik eta ondo dagoen. Ez erabili inoiz arrautza zikinik edo apurtutakorik.



7 Eskuak garbitu elikagaiaren bat manipulatzeko orduan bakoitzean. Halaber, sukaldeko tresna garbiak eta ezberdinak erabili sukaldeko zeregin bakoitzerako.



8 Patata-tortilla egin behar baduzu, patata egosia arrautzeekin nahastu justu kozinatu aurretik eta erreposazten utzi barik.



Ondo jateko denetik jan



www.osanet.net

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

- 1** Arrautza irabiatu ondoren, platera aldatu eta plater garbi bat erabili tortillak zerbitzatzeko edo gordetzeko.
- 2** Goringoa eta zuringoa banatzeko, ez erabili arrautzaren oskola. Edalontzi edo mahai-tresna garbiak erabili.
- 3** Behar duzun janari-portzioa baino ez berotu.
- 4** Arrautza gordinez edo erdi gordinez prestatutako janaria hozkailuan gorde beti. Janari hori etxetik kanpora eraman behar baduzu, hozkailu eraman-garria eraman.
- 5** Hozkailu barruan janariak estalita gorde, eta elikagai gordinak kozinatutakoetatik banatuta.
- 6** Arrautzak erabiltzen dituzunean, erreparatu ea oskoa garbi, osorik eta ondo dagoen. Ez erabili inoiz arrautza zikinik edo apurtutakorik.
- 7** Eskuak garbitu elikagaiaren bat manipulatzeko orduan bakoitzean. Halaber, sukaldeko tresna garbiak eta ezberdinak erabili sukaldeko zeregin bakoitzerako.
- 8** Patata-tortilla egin behar baduzu, patata egosia arrautzeekin nahastu justu kozinatu aurretik eta erreposazten utzi barik.

EKE Eusko Legebiltzarrean

Duela gutxi, Eusko Legebiltzarreko Nekazaritza Batzardeak Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa gonbidatu du Batzarde horren aurrean hitz egitera, bere ekarpenak egin ditzan, Eusko Legebiltzarrean egiten ari diren Nekazaritzako Elikagaien Industriari buruzko hitzaldiari dagokionez.

Kontsumitzaileen bizi-kalitateari dagokionez garrantzi handiko gaia denez, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargotik pozez jaso dugu gonbidapen hori, gauza berritzailea baita kolektibo zibilen iritzia eskatzea, kolektibo horiei zuzenean eragiten dieten arau eta Legeak egiteko.

EKEren partaidetzaren oinarrizko puntuak ondoren adierazitakoak dira.

ONARRIZKO ELIKAGAIEN PREZIOEN GORAKADAREN AURREKO ZALANTZAK

Azken hilabeteotan, oinarrizko zenbait elikagaien (ogia, esnea eta esnekiak, oilaskoa edo arrautzak, besteak beste) prezioak igo egin dira. Igoera horiek, une honetan, %20ra ere heltzen dira kasu batzuetan. Gainera, ez datoz bat produktu horiek jatorriz duten prezioarekin; hau da: nekazari eta abeltzainak ez dira dendetan ikusten diren prezioen arduradunak, eta, beraz, ez dute aparteko etekinik ateratzen. Horrek argi uzten du egoera honek sortzen duen etekina bitartekarien eta banaketa-kateen artean banatzen dela.

DIAGNOSTIKOA

Hazkundera eman da produkzio kostuetan, batez ere enpresa produktoreen kontzentrazioagatik. Une honetan, bi enpresa produktore handienek (Monsanto eta Dupont) oligopolio eran funtzionatzen dute, produkzioa kontrolatuz, eta, ondorioz, hazi eta ongarrien prezioak ere kontrolatuz.

Europar Batasunak diru-laguntza eta kupoen arloan dituen politika desegokien ondorioz, albo batean utzi dira milioika labore-hektarea, eta merkatu batzuk (oke-



larena eta esnearena, adibidez) berregituratu egin dira. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren datuen arabera, Euskadin, ustiategiak murriztu egin dira, 15 urtean 4.000tik 623ra pasatuz.

Ondorioz, eskaria eskaintza baino askoz ere handiagoa da; produkzio propioak ozta-ozta asetzen du eskariaren %3, eta, horrela, elikagaiak modu masiboan inportatzen hasi dira. Azken urteotan, inportazio horiek Europa ekialdetik datoz, eta horrek, elikagaien segurtasunari dagokionez, EAEko produktuek baino berme gutxiago ematen du.

Gainera, beste faktore batzuk ere badaude; esate baterako, India eta Txinaren eskari handia (giza zein animalien kontsumorako) eta hauts-esnearen produkzio baxua (munduko lehenengo esportatzailea den Zeelanda Berriko lehortearen ondorioz). Zalantzarik gabe, horrek tentsioak sortzen ditu prezioetan.

Bioerregaiak produzitzeko asmoz laboreak erabiltzeari dagokionez, esan beharra dago ez duela ia eraginik, horretarako erabilitako portzentajea guztirakoaren %5 baino ez da eta.

KOLEKTIBO KONTSUMERISTAREN ESKARIAK

Elikagai seguru eta kalitatezkoak; prezioek produktore-

arengan izan behar dute eragina, lehen sektorea estrategikoa baita herrialdearentzat. Eta ez soilik elikagai seguruak sorrarazten dituelako, ezpada zeregin garrantzitsua duelako lurraldearen eta ingurumenaren kudeaketan, jarduera iraunkortasun irizpideen arabera garatzen duen aldetik.

NEKAZARITZAKO ELIKAGAI EI BURUZKO EBren POLITIKA

Kritika zorrotza egin nahi diogu EBren diru-laguntzen politikari, eta, batez ere, "ordainketa bakarra" deituta-koari; izan ere, horren bitartez, lurrak izate hutsagatik diru-laguntzak ematen dira, kontuan hartu gabe produzitzen den edo ez. Modu horretan, paradoxikoa bada ere, lurjabe handiak dira diru-laguntza gehien jasotzen dituztenak, ezer produzitzen ez badute ere.

Laguntzen eta diru-laguntzen politikak zehazten eta agintzen dute zer eta zelan produzitzen den, kontuan izan gabe lurraldearen nekazaritza-ezaugarriak edo tokian tokiko elikadura-beharrizanak. EBk eta MMAk mugatzen eta zuzentzen dituzte produktoreen nekazaritza eta abeltzaintza arloko aukerak.

Gure iritziz, nekazaritza intentsiboko eredua bultzatu nahi da, merkatu libreko logikarantz joz. Oso zaila da eredu hori EAEn aplikatzea, lurraldearen zatirik handie-nean duen orografiagatik (Arabian izan ezik); izan ere, mendiko ustiatetik osatuta dago. Gainera, laborantza intentsiboko eredu honek zenbait mehatxu ditu; besteak beste:

- Defizita elikaduraren kalitatean eta ezaugarrietan.
- Ingurumen arloko arrisku handiagoak, pestizida eta ongari kimikoak modu masiboan erabiltzeagatik.
- Haziak, plagizidak, ongariak eta abar merkaturatzen dituzten enpresekiko menpekotasuna. Enpresa horiek munduko ia merkatu osoa kontrolatzen dute, eta, ondorioz, euren baldintzak inposatzeko indarra eta gaitasuna dute.
- Erakunde eraldatzaile eta merkaturatzaileen sustapena; kontsumitzaileari kobratutako etekin-marjina beraientzat hartzen dute, produktoreak ezer jaso gabe. Eredu horri aurre eginez, hauxe eskatzen dugu.

EUSKAL EREDU bat, ezaugarri hauekin:

- Nekazaritza iraunkorreko eredua garatzea, landa inguru-rua errespetatuz eta nutrizio aldetik kalitatezkoak diren elikagaien produkzioa sustatuz.

- Autosufizientzia eta barne merkatuen hornidura. Horretarako, Administrazioetik, alternatiba ekonomikoak eta jardueren dibertsifikazioa sustatu behar dira, batez ere eraldaketari eta salmenta zuzenari dagokienez. Herritarrek aldaketa handia izan dute kontsumitzeko moduetan, eta kontsumitzaileei eskatzen dituzten produktuak eskaini behar zaizkie. Kasu honetan, kontuan izan behar da alde aurretik prestatu eta egindako produktuen eskariak gorakada handia izan duela.

- Tokian tokiko komertzioa sustatzea, produktorearen eta kontsumitzailearen arteko banaketa-sare propioak sortuz, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailarekin bat etorritik (hurbileko hiri-merkataritza sustatzeko asmoz ari baita) eta merkataritza gunen periferikoen fenomeno indartsuari aurre eginez.

- Haziak landatu, gorde eta aukeratzeari dagokionez, barietate tradizionalen erabilera berreskuratzea.

- Lurzoru emankorraren galera geldiaraztea, baztertutako gunek edo presio urbanistiko handiko lekuak modu berezian babestuz.

- Produktuaren trazabilitatea defendatzea, etiketek ematen duten informazioa modu berezian nabarmenduz.

BASO-USTIATEGIAK

Radiata pinuak inportazioko beste espezie batzuekiko duen errentagarritasun baxuaren eta krisiaren aurrean, komenigarria izango litzateke:

Bertako espezieen landaketak sustatzea eta artzaintza eta basoa uztartuko dituen espazioak sortzea.

LABORANTZA TRANSGENIKOAK

Zuhurtzia-printzipioa ezartzea, batez ere ingurumenean sortzen den kutsaduragatik, transgenikoak ez diren beste espezie batzuk kolonizatzean.



Etxebizitzetxei buruzko aholkularitza

Elkargoak erantzun

Bidali zure aholku-eskaerak honako helbidera: Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa. Juan de Ajuriagerra kalea, 9-7. 48009 Bilbao edo posta elektronikoaren bidez, beste honetara: eke@arrakis.es

Errenta igo daiteke errentatzaileak egindako hobekuntzengatik, kontratuaren bost urteko epea igaro ondoren?

Errentatzaileak hobekuntzak egiten baditu, kontratuak bost urteko epea igaro ondoren, eskubidea izango du, kontrako itunik egon ezean, urteko errenta igotzeko. Zenbateko hori zehazteko, hobekuntzan inbertitutako kapitalari lanak amaitu diren unean diruak duen legezko interes-tasa aplikatu behar zaio, hiru puntutan igoz; dena dela, igoerak ezin izango du gainditu une hartan indarrean zegoen errentaren ehuneko hogeia.

Inbertitutako kapitala kalkulatzeko, lana egiteko lortutako diru-laguntza publikoak deskontatu behar dira.

Behin lanak amaituta daudenean, errentatzaileak errentariari errentaren zenbatekoa idatziz jakinarazten dion hilaren hurrengoan igoko da errenta; era berean, zenbatekoa ezartzeko egindako kalkuluak zehaztu behar dira eta egindako lanen kostua erakusten duten agirien kopia aurkeztu behar dira.

Finkaren atezaina ordezkatu behar izanez gero, maizterrak ordaindu behar du?

Zerbitzu eta horniduretan izandako edozein gastu, kontrakoa itundu ezean, errentatzaileari egotzi ahal zaio, Hiri Errentamenduen Legearekin bat etorritik, eta, are gehiago, atezaindegi kontzeptua betidanik ordaintzen bazen, izan ere, horrek adostasun argia erakusten du. Beraz, edozein arrazoi dela-eta atezain titularraren ordezkaria ordaindu behar bada, errentatzaileari egotzi ahal izango zaio.

Komunitateko kide baten helbidea zein den jakin ezean, nola deitu behar da jabeen batzarra?

Komunitatearen estatutuetako aurreikuspenez aparte, Jabetza Horizontalaren Legeak ezartzen du, ez denean helbiderik esleitu Espainian, deialdia pisan edo lokalean bertan egingo dela.

Hain zuzen ere, hori gertatzen da kasu honetan, eta, horrenbestez, komunitateak soilik egiaztatu beharko du deialdia aipatutako pisan edo lokalean utzi zuela, nahiz eta hutsik egon; hori egiteko, atezainaren lekukotasuna erabili ahal izango da, postak itzuli egin duelako, etab... Jakina, kasu honetan, jabeak ezin izango du deialdiaren edo akordioaren aurka egin, Jabetza Horizontalaren Legeak ezartzen duen 30 eguneko epea igaro ondoren; izan ere, komunitateak zorrotz bete du Legearen aurreikuspenak. Bestalde, gehitu beharra dago aho batez hartu behar diren erabakiak baino ez direla jakinarazi behar nahi-taez, aipatutako Legearekin bat etorritik.

Jabeen ordezkariak batzarrean, etxebizitza batzuk txandaka aprobetxatzeko direnean.

Jabetza horizontaleko erregimena duen eraikin batean pisu batzuk txandaka aprobetxatzen direnean, etxebizitza edo lokal bat zenbait jabeen jabetzakoa denean bezala tratatzen da gaia, azken kasu hori ere sarri gerta baitaiteke. Kasu honetan, doktrinak eta jurisprudentiak diote gastu amankomunetarako solidaritate egoera baten aurrean gaudela; izan ere, Jabetza Horizontalaren Legeko 15. artikulua agintzen du kasu horietan ordezkari bakarra izendatu behar da Batzarretara joan eta botoa emateko.

Eskatu beharreko gastuak jabe bakarrek pisuak edo lokalak izango lituzkeenak direla, hau da, kuota edo titulu bereziki ezarritakoa.